

De

Editoriala

HEZKUNTZA SISTEMA NAFARROAN: LABURPENA, 2001-2002 ikasturtea.

Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2002ko abenduaren 19an egin zuen Osoko Bilkuran, Foru Komunitateko hezkuntza sistemari dagokionez manuzkoa den urteko txostena onetsi zuen.

Nafarroako Hezkuntza Sistemaren 2001/2002 ikasturterari buruzko txostena Nafarroako Eskola Kontseiluak legez adjudikaturik duen betebeharririk behinenetakoa da.

Helburua Nafarroako gizarteari eta bere agintariei Foru Komunitatean eskaintzen eta garatzen diren hezkuntzako zerbitzu eta egitarauen berri ahalik eta osoena eta errealea ematea da. Ondorioz, txosten honetan hamaika datu, koadro eta estatistika ematen dira.

Bigarren alderdiari dagokionez, Eskola Kontseiluak iradokizun eta balorazio batzuk egiten ditu. Iradokizun horiek Kontseiluko kideek eztabaidatu ondoren eta gehiengoak balorazioa eman ondoren ematen dira.

Orain aurkezten dugun dokumentua datu hauekin onetsi zen: 11 boto alde, 5 boto aurka, 1 abstentzioa.

Beraien boto partikularra adierazi dute ondoko erakundeetako eskuordeek: CC.OO., STEE-EILAS eta HERRIKOA.

Txostena argitaratu egingo da, eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeari eta Nafarroako Irakaskuntzako Zentro guztiei igorriko zaie.

Halaber, laster ondoko web orrian egonen da eskuragarri:

www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra

Proposamen nagusiak era honetan laburtzen ahal dira:

Haur Hezkuntza. 0-3 urte bitarteko zikloaren garapena

Nafarroan, duela hiru urte hasi zenetik, hezkuntzako epata honek gero eta garrantzia handiagoa lortu du, eta nahiko da dau hauek kontuan izatea

Unitateen kopurua: 161

Haurrak: 1.664.

Aurten ere, hirugarren urtean jarraian, Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi behar du kezkatutik dagoela, zeren eta oraindik ez baita Haur Hezkuntzaren lehenengo tartea (0-3 urtekoena) araupezu, nahiz eta Nafarroako eskola kontseilu honek zegokion irizpena eman zuen eta, gainera, ezartze prozesua dagoeneko abiatu den.

Horren ondorioz, Nafarroako Eskola Kontseiluak pre-sazko araupeketa eskatu du, LOGSE legearen markoan.

Lanbide Heziketari dagokionez:

Hurrengo datuek heziketa ziklo berrien azken urteetako bilakaerari buruzko estatistika-ikusmoldea dakarte. Azken urteotan LOGSE ezartzeko azken fasea egin da.



1996 eta 2002 bitarteko epealdian eskainitako ziklo kopurua eta lanbide heziketako titulazioak						
Ikasturtea	Maila ertaina (teknikaria)		Goi maila (goi teknikaria)		Orotara	
	Ezberdinak	Ziklo kop.	Ezberdinak	Ziklo kop.	Ezberdinak	Ziklo kop.
1996-97	14	28	11	21	25	49
1997-98	16	32	15	25	31	57
1998-99	28	71	22	39	50	108
1999-00	30	88	34	63	64	151
2000-01	30	95	40	84	70	179
2001-02	31	96	42	86	73	182

Heziketa Zikloetan matrikulatu diren ikasleak, 2001/2002		
1.	2.	OROTARA
3.766	1.941	5.707

Lanbidean Hasteko Programetan matrikulatu diren ikasleak (Lanbide Tailerrak eta Hezkuntza Berezia) 2001/2002	
OROTARA	
768	

LHko eta Batxilergoko ikasle kopurua Autonomia Erkidegoz Autonomia Erkidego (1999-2000 ikasturtea)			
	LHko ikasleak	Batzilergoko ikasleak	%
Espainia	485.318	760.825	38,9
Andaluzia	78.612	140.555	35,9
Aragoa	15.216	19.834	43,4
Asturias	15.278	21.783	41,2
Balearrak	5.708	12.637	31,1
Kanariak	27.432	36.416	43,0
Kantabria	8.429	10.388	44,8
Gaztela eta Leon	31.419	49.978	38,6
Gaztela-Mantxa	15.208	30.280	33,4
Katalunia	66.976	105.304	38,9
Valentziako Erkidegoa	49.841	67.619	42,4
Extremadura	10.053	20.704	32,7
Galizia	42.927	51.749	45,3
Madril	56.605	112.204	33,5
Murtzia	14.234	23.039	38,2
Nafarroa	7.741	8.902	46,5
Euskadi	34.234	42.192	44,8
Errioxa	4.036	4.453	47,5

Eskola kontseilu honek Nafarroako Gobernari LHn nolako joerak dauden aztertzen jarrai dezan eskatu nahi dio, zer-tarako eta eskaintza orekatuz joateko, ikasleen eskaria eta ekoizpen-arloaren beharrianak kontutan harturik. Nafarroako Eskola Kontseilua bat dator ahal den eskualde eta herri guztietan L.H.ko zentro integratuak sorkuntzarekin.

Atal honen barruan berariazko garrantzia du **Lanbide Heziketa garatzeko Nafarroako Planaren** izaerak eta nor-tasunak. Era honetan laburtzen ahal da:

Helburu Orokorra:

Nafarroan herri baliabidez finantzatutako lanbide heziketako maisu-lerroak datozen lau urteetarako diseinatzea, hiru erronkari erantzuna emateko. Erronka horiek honakook dira: Heziketa-eskaintzak enpresen benetako eskariei egokitzea eta lanbide heziketa pertsona gehiagorengana formula eraberritzailen bitartez zabaltzea.

Hasierako lanbide heziketako, zereginetako lanbide heziketako eta lanbide heziketa iraunkorreko eskaintzen kalitatea hobetzea.

Lanbide heziketa eta gaikuntzako osoko sistema koordinatuak garatzea, lanbide informazioa eta orientazioa hobetuz.

Helburu orokorra banakatuta dagoen helburuak ekintzarekin eta emaitzak zehaztearekin askoz lotuago daude.

Egiturazko Helburuak:

Lanbide gaikuntzetako eta lanbide heziketako osoko sistema garatzea, Nafarroako Kualifikazio Institutua eta Lan Gaitasuna Ziurtatzeko Agentzia sortuz.

Modulutako erreferentziarako heziketa-katalogoa ezartzea, lanbide heziketa modalitate guztietarako baliozkoa den eta lanbide gaikuntzetako osoko sistemarekin egituratuta dagoena.

Hasierako lanbide heziketa eta lanbide heziketa iraunkorra ematen duten ikastetxe integratuen sare koordinatua sortzeko balio duten neurriak bultzatzea. Ildo horretatik, haien tipologia ezberdinak ezarri eta haiek sarekoak izateko beharrezkoak eta prozedurak finkatu behar dira.

Lanbide informazio eta orientazioko osoko sistema egokia ezartzea. Izan ere, hori erabiltzen duten ikasle edo langileek lanbide heziketako modalitateak eta loturiko bertzeko edozein zerbitzu sartuta dauden informazio- eta orientazio-zerbitzua atzitzeko aukera izan behar dute: enplegu-burtsa, lan gaitasuna ziurtatzea, Europar Batasuneko mugikortasuna, bekak eta abar.

Testuingurua aztertzeako Helburuak:

Nafarroako ekoizpen-arloko agibideetan gaitu beharrik dagoen jakitea. Horretarako, egun eskatutako gaitasunak eta etorkizun hurbilerako aurreikusitakoak aztertu behar dira.

Editoriala

Lanbide ingurune eta zona bakoitzerako heziketa-beharri-zanak zehaztea. Ildo horretatik, lanbide heziketaren modalitate bakoitzean kasu bakoitzerako lan-gizartezko egokitzapenik handiena lortzeko eman behar diren erantzun koordinatuak aztertu behar dira.

Eragiketa-helburuak.

Lanbide heziketaren modalitateen eskaintzen kalitatea hobetzea.

Ogibide ezberdinen eskaerarako ekipamendu eta insta-

lazio egokietan inbertitzea.

Enplegu-politika aktiboetan eta, zehazki, Nafarroako Enplegu Planean integratuta dauden lanbide heziketako neurriak sustatzea.

Lanbide heziketako sistema berria eta, zehazki, Nafarroako Lanbide Heziketako Plana zabalitzeko ekintzak bultzatzea.

Zehaztutako helburuek Lanbide Heziketa garatzeko Nafarroako Planean proposatzen diren programa zehatzekin duten erlazioa honako taula hauetan ikus daiteke:

EGITURAZKO HELBURUAK	PROGRAMAK
Lanbide gaikuntzetako eta lanbide heziketako osoko sistema garatzea.	1. PROGRAMA: Erakundeek Nafarroan lanbide heziketa bultzatzea. 2. PROGRAMA: Nafarroan Gaikuntza Sistema ezartzea. 3. PROGRAMA: Nafarroako Gaikuntzen Institutua sortzea. 4. PROGRAMA: Enplegu Behatokiaren funtzioak gaikuntza-sistemeekin bateratzea. 5. PROGRAMA: Gaitasuna egiaztatze sistema abian jartzea.
Modulutako erreferentziazko heziketa-katalogoa ezartzea.	6. PROGRAMA: Osoko heziketa-katalogoa diseinatzea. 7. PROGRAMA: Material didaktikoak egitea eta ikasteko sistemak garatzea, teknologia berrietan oinarriturikoak.
Ikastetxe integratuen sare koordinatua sortzeko balio duten neurriak bultzatzea.	8. PROGRAMA: Lanbide heziketako zentroak organikoki eta arazuz diseinatzea.
Lanbide informazio eta orientazioko osoko sistema egokia ezartzea.	9. PROGRAMA: Sarean integraturiko informazio eta orientazioko sistema. 10. PROGRAMA: Ogibideak generoarengatik murriztapenik gabe aukeratzeko ekintzak
TESTUINGURUA AZTERTZEKO HELBURUAK	PROGRAMAK
Nafarroako ekoizpen-arloko ogibideetan gaitu beharrik dagoen jakitea.	11. PROGRAMA: Nafarroan lanbide gaikuntzak aztertzea. 12. PROGRAMA: Ogibide batzuetako desprofesionalizazioak ekartzen duen problematika zehazki aztertzea.
Ingurune eta zona bakoitzerako heziketa-beharri-zanak zehaztea.	13. PROGRAMA: Lanbide heziketa zona eta ogibideei egokitzea. 14. PROGRAMA: Berriztatzen ahal diren energien arloan eraberritzeko eta prestatzeko nazioko zentroa sortzea.
ERAGIKETA-HELBURUAK	PROGRAMAK
Lanbide heziketaren modalitateen eskaintzen kalitatea hobetzea.	15. PROGRAMA: Irakasleak eta prestatzaileak prestatzea. 16. PROGRAMA: Teknologia eraberritu eta garatzeko proiektuak. 17. PROGRAMA: Lanbide irakaskuntzako eraberriketara didaktikoa. 18. PROGRAMA: Lanbide heziketako osoko modulu-katalogoa ematen duten zentroetan kalitate-eredu bat zehaztea.
Ekipamenduan eta instalazioetan inbertitzea.	19. PROGRAMA: Lanbide heziketako ikastetxeen ekipamendua eta instalazioak hobetzea.
Enplegu-politika aktiboetan integratuta dauden lanbide heziketako neurriak sustatzea.	20. PROGRAMA: Antolakuntza dualeko lanbide heziketako sistemak sustatzea. 21. PROGRAMA: Urrutitiko lanbide heziketa iraunkorreko ereduak programa. 22. PROGRAMA: Langileentzat lanbide heziketa arautua eskaintzeko ereduak programa. 23. PROGRAMA: Langabezi tasa altuak dituzten taldeak birgaitu eta lanbideratzea. 24. PROGRAMA: Biztanle etorkinen lanbide gaitasuna hobetzeko lanbide heziketa.
Lanbide Heziketa berria zabalitzea.	25. PROGRAMA: Lanbide Heziketa garatzeko Nafarroako Plana zabalitzeko komunikazio-kampaia.



Lanbide Heziketarako inbertsioak eta aurreikuspena

Lanbide heziketa 2001ean zehar ibiltzeko herri baliabideen

zenbatekoa, gutxi gorabehera, 57,3 milioi eurokoa izan da, honako taula honetan ikus daitekeen bezala.

Lanbide Heziketarako herri baliabideak		
Lanbide heziketaren modalitatea	2001eko ibilerako inbertsioak	
	Milioi eurotan	Milioi pezetatan
Lanbide Heziketa Arautua (1)	31	5.160
Lanbidean Hasteko Programak (2)	3,6	600
Zereginetako Lanbide Heziketa (3)	12,4	2.070
Lanbide Heziketa Iraunkorra (4)	10,3	1.700
OROTARA	57,3	9.530

(1) Ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxeen heziketa-eskaintzak.

(2) Modalite guztiak sartuta.

(3) Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren inbertsioak konputatuta.

(4) Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta FORCEMen ekintzak.

Inbertsioaren aurreikuspena.

Planaren proiektuak garatzeak 238.441.000 euro inguruko herri gastua berekin ekarriko duela uste da. Gastu hori Nafarroako, Europar Batasuneko eta Estatuko Aurrekontu Orokorrez finantzatuko da.

LHko Planeko inbertsioa banatuko delako aurreikuspena (2001-2004)				
2001	2002	2003	2004	Total
57.343.000	63.793.000	58.955.000	58.350.000	238.441.000

Hezkuntza Berezia:

Hezkuntza Berezia dagokionez, Eskola Kontseiluaren ustez, hezkuntza-beharrian bereziak dituzten pertsona eta, bereziki, minusbaliotasun psikiko edo sentorial edo motrizitate-minusbaliotasundunak. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan integratzeko prozesua ebaluatu behar da. Hezkuntzen irakaskuntzari dagokionez, ondokoa azpimarratuko dugu:

Ingelerazko Edukien Irakaskuntzarako Programa.

Parlamentuak atzeritar hizkuntzak irakasteko orduak gehiagotzeko egindako eskaera du oinarri proiektu honek. Beste alde batetik, irakasleen sindikatu-ordezkaririk gehienek eta Administrazioak hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko sinaturiko Ituneko akordioetakoa da. 2002-2003, ikastetxe guztiek ingelera bi ordu gehiagoz emanen dute Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (A, B eta D ereduak ikastetxeek ordutegi ezberdina eta laguntza ukanen dute beren hizkuntz proiektuak egiteko beharrezko dutena, beren berezitasunen arabera). Ikasturte honetatik aurrera, ingelerazko

irakaskuntzak ikasturteko 2 ordu gora egiten joanen dira. Proiektu honen funtsezko helburua ikasleei hizkuntzak hobeto ikasten laguntzea da. Horretarako, ingelera erabiliko da curriculum-edukiak irakasteko eta ikasteko hizkuntza bezala. Modu horretara, lengoia gehiagotan erabiltzeko aukerak handituko dira. Horrela bada, ez da ezein irakasgai ingeleraz zehazki emanen.

Nafarroako Eskola Kontseilua Europar Batasuneko Estatuakiko eskola-trukeetarako laguntzak ezabatu dituztela ohartu da. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle anitz ziren truke horien onuradunak. Horren guztiaren ondorioz, kontseilu honek programa hau berreskuratzea hobetsi du.

Dibertsitatearekiko arreta.

Nafarroako Foru Komunitatean 2001/2002 ikasturte honetan aniztasuna arretaz zaintzeko hartu diren neurri ugarien artean, "3. eta 4. Ziklo Egokituak", "Curriculo egokituak unitateak" eta "Curriculum aniztasuna" zikloetan arreta berezia jasotzen duten ikasleak daude.

3. Ziklo Egokituak, 4. Ziklo Egokituak, CEUko eta Dibertsifikazioko matrikulak ikastetxe publikoetan, 2001/2002 ikasturtean								
	3. Z.		4. Z.		CEU		CURR. DIB.	
	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.
OROTARA G ERED.	131	10	72	6	57	9	111	17
OROTARA A ERED.	22	1			8	1	12	2
OROTARA D ERED.							22	3
OROTARA B ERED.								
Orotara	153	11	72	6	65	10	145	22

CEU matrikulak eta itunpeko ikastetxeetako dibertsifikazioa, 2001/2002 ikasturtea				
	CEU		CURR. DIB.	
	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.
OROTARA G ERED.	26	5	0	1
OROTARA A ERED.	0	1	0	0
OROTARA D ERED.	0	1	0	0
OROTARA B ERED.	0	0	0	0
Orotara	26	7	0	1

Hezkuntza sistemaren ebaluazio eta kalitatea. Ikasleen promozioa

2001/2002 ikasturtean zehar 4 kalitatezko sare ibili dira. Beraietarik bik 1998/1999 ikasturtean hasitako beren prestabidearekin zirauten. Beste biak sortu berriak ziren. Hilero 5 orduko banakako lan-bilerak egin dira. Beraietara joan dira ikastetxeetako kalitate-arduradunak eta zuzen-

daritzako taldeetako kideak. N1, N2 eta N3 sareek bilerak Iruñeko PEIren garatu dituzt, eta N4 sareak Tuterako PEIren, hurrengo zerrendan ikus daitekeen bezala.

Nafarroako Eskola Kontseiluak ontzat jo du hobekuntza-eta kalitate-planak ikastetxeetan ezartzea, eta Nafarroako gainerako ikastetxeak horrelako proiektuei heldzera bultzatu nahi ditu.

Lehen Hezkuntzako emaitza akademikoak, 2000-2001 ikasturte

Emaitza globalak, 2000-2001 ikasturtekoak			
Zikloa	Ikasleak orotara	Igo dira	Igo den %a
1. Zikloa	4.438	4.224	95
2. Zikloa	4.568	4.319	94
3. Zikloa	4.749	4.482	94

DBHko emaitza akademikoak, 2000-2001 ikasturtekoak

Emaitza globalak			
	98-99	99-00	00-01
3. ikasmailara igo diren ikasleak	%90	%88	%88
4. ikasmailara igo diren ikasleak	%85	%83	%82
Bigarren Hezkuntzan graduatuaren titulua lortu duten ikasleak	%85	%85	%83

Batzilergoko 1. ikasmailako emaitza akademikoak, 2000-2001 ikasturtekoak

EMAITZA GLOBALAK, 2000-2001 urtekoak			
	EKAINA	IRAILA	OROTARA
Irakasgaiak oro gainditu dituzten ikasleak	%44	%12	%56
Irakasgai 1na suspenditu duten ikasleak	%13	%15	%15
2na irakasgai suspenditu dituzten ikasleak	%13	%11	%11
2na irakasgai baino gehiago suspenditu dituzten ikasleak	%30	%18	%18

Batzilergoko 2. ikasmailako emaitza akademikoak, 2000-2001 ikasturtekoak

EMAITZA GLOBALAK, 2000-2001 ikasturtekoak			
	EKAINA	IRAILA	OROTARA
Irakasgaiak oro gainditu dituzten ikasleak	%54	%19	%73
Irakasgai 1na suspenditu duten ikasleak	%6	%3	%3
2na irakasgai suspenditu dituzten ikasleak	%11	%6	%6
2na irakasgai baino gehiago suspenditu dituzten ikasleak	%29	%18	%18

Heziketa Zikloetako emaitza akademikoak, 2000-2001 ikasturtea

1.500na ordutik BEHERAKO HEZIKETA ZIKLOAK (ikasmaila 1, FCTik gabe)								
	Ikasle kopurua	Gainditzeko dauden moduluak					Igo.	
		0	1	2	3	>3	F.C.T	% Pos
OROTARAKO OROKORRA	812	373	148	73	57	159	421	51,8%

1.500na ordutik GORAKO HEZIKETA ZIKLOAK (2 ikasmaila, FCTarekin)

	Ikasle kop.	Gainditzeko dauden moduluak					Igo.	Errep.	Igoak %tan
		0	1	2	3	>3			
OROTARAKO OROKORRA LEHEN IKASTURTEA	1.404	846	206	79	100	167	988	407	70,4%
OROTARAKO OROKORRA BIGARREN IKASTURTEA	1039	876	65	24	14	27	961	898	92%

Ikasleak etapaka.

Ikasleen bilakaera orokorrean hazkuntza txikia antzema-
ten ahal da Haur eta Lehen Hezkuntzari dagokionez, eta
jaitsierak jarraitzen duela DBH eta Batxilergoan.
Azpimarratu behar da L.H.ko gorakada positiboa egon

dela 2001-2002 ikasturtean, nahiz eta beherakuntza
demografiko handiena izan duten belaunaldiak batera
gertatu; azalpen bakarra eskaintzaren kalitate eta kantita-
tearen hobekuntza baino ezin da izan.

Nafarroako eskola matrikularen bilakaera orokorra, 1997/98-2001/02			
	Curso 99/00	Curso 00/01	Curso 01/02
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	14.161	14.662	15.379
Lehen Hezkuntza	29.159	29.229	29.768
Derrigorezko Bigarren Hezkuntza	22.072	21.549	21.487
Batxilergoa	8.483	8.809	8.113
lanbide Heziketa	7.614	6.258	6.797
Hezkuntzaberezia ⁽¹⁾	305	329	329
Orotara, publikoa	49.761	49.653	50.645
Orotara, itunpekoa	31.851	31.183	31.228
OROTARA	81.612	80.836	81.873

⁽¹⁾ Zentro berezietan.

Hezkuntzako beharrian bereziak dituzten ikasleak.

Nafarroako Eskola Kontseiluak bai ikastetxe publikoetan
bai itunpekoetan ikasleoi kasu egiteko laguntzak eta diru-

laguntzetarako deialdiak mantendu eta gehiagotzeko
eskatu nahi du.

Ikasle etorkinak eta osabidezko hezkuntzako programetan
daudenak.

Ikasle etorkinak eta osabidezko hezkuntzako programetan daudenak.

Ikasle etorkinak, 1999/2000, 2000/2001 eta 2001/02 ikasturteak			
	1999/2000 ikasturteko ikasleak	2000/2001 ikasturteko ikasleak	2001/2002 ikasturteko ikasleak
OROTARA	1.062	1.667	2.326

Atzeritar ikasleak, mailaka eta titulartasunka, 2001/2002 ikasturtea ⁽¹⁾				
	Haur+Lehen Hezkuntza		DBH	
	Publikoa	Itunpekoa	Publikoa	Itunpekoa
OROTARA	1.634	505	538	125

⁽¹⁾ 2002ko irailaren 30eko datuak.

Atzeritar ikasleak, etapakako datuak, 1999-2000 eta 2001-2002 ikasturteak									
Ikasturtea	Ikastetxe publikoak				Itunpeko ikastetxeak				OROTARA
	HH	LH	DBH	Ikast. Pub. OROTARA	HH	LH	DBH	Itunp. Ikast. OROTARA	
1999-2000	174	412	161	747	65	162	88		1.062
2000-2001	321	684	116	1.121	114	280	152	546	1.667
2001-2002	356	1.067	454	1.877	247	152	139	538	2.415

⁽²⁾ 2002ko apirilako datuak.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren iritziz, itunpeko ikastetxe-
en eta ikastetxe publikoen artean ikasle etorkinei begira
egon daitekeen konpentsaziorik eza orekatzeko modu bat
Nafarroako Komunitateko ikastetxeen eskaintza orokorrari
eta haien eskolatze baldintzei buruzko informazioa ema-
tea da, orokorrean izena eman aurretiko epealdian.

Nafarroako Eskola Kontseiluak dirulaguntza-modulua kul-
tur gutxiengo baztertuetako ikasleen eta ikastetxe publiko-
etan eta itunpekoetan eskolaturiko ikasle etorkinen ekipa-
menduetara, eskolako materialera eta jantokirako lagun-
tzetara zabaltzea beharrezkotzat jo du, baldin eta ekono-
mi baliabiderik ez badute.

Ikasle/Talde ratioak.

Oro har, Nafarroan eta 2001/2002 urtean, aurreko ikas-

turteko ratioak mantendu dira, hori bai, aldaketa txikiekin, baina beti ere estatutuko batezbestekoaren azpitik.

NAFARROAKO ikasleria/talde ratioen bilakaera, 1997/1998 ikasturtetik 2001/02 ikasturtera. Publikoa/Itunpekoa					
	1997/98	1998/99	1999/00	2000/01	2001/02
Haur Hezkuntzako 2. Zikloa					
Publikoa	17	17	16,2	17,36	17,15
Itunpekoa	22	22	22	22,36	22,68
Lehen Hezkuntza/OHO					
Publikoa	17	17	17	16,54	16,56
Itunpekoa	24	24	23,3	23,16	23,27
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza					
Publikoa	23	22	22,1	22,38	21,38
Itunpekoa	29	28	27,2	26,49	25,93
Batzilergoa/UBI					
Publikoa	28	26	23,8	23,44	24,50
Itunpekoa	31	31	27,2	26,42	25,70
LH eta Zikloak²					
Publikoa	24	23	21,5	19,14	18,97
Itunpekoa	28	28	28,2	25,40	24,62
Gizarte Bermea					
Publikoa	14,66	11,40	11,06	11,46	11,95
Itunpekoa	14,70	12,50	12,11	15,28	13,75
Hezkuntza Berezia³					
Publikoa	4	4	3,75	3,87	4,19
Itunpekoa	8	7	4,7	4,86	4,95
Hezkuntza Bereziko Gizarte Bermea					
Publikoa	7	5,12	5	5,07	4,36
Itunpekoa	8	8	7,87	6,54	8,87

Ikasleen betebeharrak eta eskubideak. Ikasleen elkartegintza.

Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi du ezen ikasleek elkarre gutxi egiteak eta erakundeetan parte urria hartzeak kezkatuak dagoela. Hori dela eta, sektore guztiei ikasleek parte hartzea bultzatzeko eskatu nahi die. Izan ere, parte hartze hori oso garrantzitsua da haien heziketa-prozesurako. Ildo horretatik, Nafarroako Eskola Kontseiluak ikasleei dei egin die beraien heziketari buruzko alderdi garrantzitsuak ezabaidatu eta erabakitzen diren guneetan orotan eraginkortasunez parte har dezaten, beren erakunde edo elkarleen bitartez guneetan parte har dezaten alegia.

Bekak. Nafarroako Gobernuaren deialdi orokorra. Testuliburuak erosteko laguntzak. Bertze deialdi batzuk
Nafarroako Eskola Kontseiluaren ustez, komenigarria da eskabideen tramitazioa erraztea eta ikastetxeetako Eskola

Kontseiluek bizkortasunarekin eta lankidetzan jarraitzea. Horrek ez du bekak ematen direla urrikiago egiaztatzerik eta emate hori urrikiago kontrolatzerik zertan ekarri.

Nafarroako Eskola Kontseiluak ontzat jo du Nafarroako Gobernuak eskolako liburuak eta materialak erosteko egitza laguntza-deialdia. Izan ere, deialdi horretako eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioareneko laguntzen bitartez doan jasotzen ahal dituzte doakotasun hori behar duten familiek testuliburuak.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren ustez haien zabalkundea hobetu behar da eta eskabidean eskaturiko agiriak ahalik eta urriendu, laguntzok ahalik eta familia gehienei eta beharrik handiena dutenei hel dakizkien eskatzeko. Beraz, eskabide bikoitza saihestu beharko litzateke.

Nafarroako Eskola Kontseiluak Hezkuntza eta Kultura Departamentuari ikastetxeetan sistema egokia ezartzea aztertzea eskatu dio, eskola materialak eta liburuak dohai-rik eskuratu ahal izateko.

GIZA BALIABIDEAK

Herri ikastetxeetako irakasleak (kidegoak-aldartekoak).

Ikastetxe publikoetako irakasleak kontratatzearen bilakaera, 1997-1998 ikasturteetik 2001-2002ra arte, haiek kide dituzten kidegoak.					
KIDEGOAK	1997/1998	1998/1999	1999/2000	2000/2001	2001/2002
Bigarren Irakaskuntzako Irakaslea	427	504	484	358	383
LHko Irakasle Teknikoa	63	101	134	123	132
HEO Irakaslea	16	15	16	16	15
Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakaslea	33	35	37	39	37
Arte Plastikoetako eta D-ko Irakaslea	18	19	24	25	23
Arte Plastikoetako eta D-ko Tailerreko Maisuak	4	16	5	5	5
Eskolako orientatzailea	12	10	30	--	--
BIGARREN HEZKUNTZA OROTARA	573	700	733	566	596
Maisu edo maistra	292	283	385	547	487
DBHko maisua edo maistra	72	60	64	42	79
MAISU-MAISTRAK OROTARA	364	343	449	589	566
OROTARA	937	1.043	1.182	1.155	1.162

Nafarroako Eskola Kontseiluak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari Nafarroako Gobernuko (Foru Aldundia) antzinako irakasle batzuen egoera konpontzeko eskatu dio. Irakasle horiek ahal zutenean funtzionariotze-prozesuari heldu zioten eta uneotan ezin dute

lehenago erretiratzeko inolako modalitatearik aukeratu. Izan ere, alderdi horri dagokionez, ez daude lan-legeriak (funtzionarioak direlako) ez funtzionariotza-legeriak (koti-zatzen lanekoak direlako) babesturik.

Itunpeko zentroetako irakasleak.

Itunpeko ikastetxeetako irakasleak kontratatzearen bilakaera, 1997-1998 ikasturteetik 2001-2002 ikasturtera arte					
	1997/98	1998/99	1999/00	2000/01	2001/02
Haur Hezkuntza		267	280	282	291
Lehen Hezkuntza	657	670	693	693	703
DBH 1	254	259	254	263	267
DBH 2	227	267	273	287	280
BBB / Batxilergoa	75	77	158	159	157
LH I	19				
LH II	95	58	29	5	
Maila ertaineko HZ	10	22	34	39	42
Goi mailako HZ	7	17	32	45	45
Hezkuntza Berezia	31	31	35	35	35
Lansaila osoak orotara	1.375	1.668	1.788	1.808	1.820
Irakasleen gutxi gorabeherako kopurua	1.650	1.950	1.975	2.020	2.080

Nafarroako Eskola Kontseiluak ontzat jo du itunpeko ikastetxeetan ikastetxe publikoekiko alokairua eta lanaldia antzekoak izateko prozesua ekartzen duten akordioak ezartzea.

Azpiegitura eta gauzatutako ekipamendua.

Nafarroako eskola-kontseiluak beharrezkotzat jotzen du aurrekontu-partida bat ezartzea hitzartutako ikastetxeak eraikitzeko, eraberritzeko edo/eta handitzeko obrak diruz laguntzeko.

Gobernu Organoak.

Nafarroako Eskola Kontseilua kezkatu agertzen da gurasoek oso gutxi hartzen dutelako parte ikastetxeen bizitzan. Irakasleen gurasoentzako zabalakunde kanpainak eta prestakuntza ikastaroak antolatuzko gomendioa egiten dugu,

ikastetxeetako gobernu organoetan izan beharko luketen partaidetza indartzeko eta suspertzeko.

Era berean, Ikastetxeetako Eskola Kontseiluetan gurasoen partaidetza errazteko gizarte eta lan arloko neurriak aztertze gomendioa egiten dugu.

Nafarroako Eskola Kontseiluak aholkua ematen du Nafarroako Hezkuntza zentroetako hauteskunde eguna bateratua izan dadin, eta horietan esku hartzeko informazio kanpainak egin daitezen.

Irakasleen Guraso Elkarteak.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren aburuz, handitu egin beharko lirateke Irakasleen Gurasoen Elkarteentzako dirulaguntzak, 2000an emandakora iristeko gutxienez.

Editoriala

Euskara Nafarroako hezkuntza Sisteman.

Euskaraz eta euskararen matrikulatu direnikasleen bilakaera.						
	1999/00 ikasturtea		2000/01 ikasturtea		2001/02 ikasturtea	
	Publi.	Itunpe.	Publi.	Itunpe.	Publi.	Itunpe.
A eredu	10.907	2.448	11.400	2.994	11.899	3.160
B eredu	159	73	96	64	77	62
D eredu	10.732	4.952	11.369	4.936	11.894	4.875
GUZTIRA	21.798	7.473	22.865	7.994	23.870	8.097

Ikasleak hizkuntza ereduaren arabera, 2001/2002 ikasturtea								
	G EREDUA		A EREDUA		B EREDUA		D EREDUA	
TITULARITATEA	Publikoa	Itunpekoa	Publikoa	Itunpekoa	Publikoa	Itunpekoa	Publikoa	Itunpekoa
Haur hezkuntza	2776	3755	3689	890	10	19	3199	1141
Lehen hezkuntza	7171	7642	6164	1745	33	43	4786	2184
DBH	7990	7268	1729	507	34		2582	1377
Batzilergoa	3872	2507	311	18			1232	173
Forma. zikloak	4434	1674	6				95	
GUZTIRA	26143	22846	11899	3160	77	62	11894	4875

Nafarroako Eskola Kontseiluari harrigarria iruditzen zaio B ereduak daukan harrera eskasa. Kontseiluaren ustez, eredu horrek berma ditzake benetako elebitasuna, elkarren arteko begirunea eta onarpena. Horrenbestez, B ereduaren egitura berriz aztertze eta eredu hori bultzatzeko gomendia egiten du Kontseiluak.

Euskara ikasteko jarduerak eta irakasleentzat: errezikla-jea eta betelakoak.

Nafarroako Eskola Kontseiluak hirugarren urtez egiten du proposamen hau: lanetik erabat liberaturik birziklatutako irakasleentzako irakaskuntza konpromisoa 10 ikasturtera luzatzea.

Ikasgela gaur

ALTSASUKO ZELANDI IKASTETXE PUBLIKOAK XXV. URTEURRENA BETEKO DU

1977an, Altsasun 7.000 biztanle bizi ziren. Azken 25 urte hauetan biztanle kopurua ez da asko aldatu, bai, ordea, herrialde horretako adinaren piramideak.

1977. urtean 3 eta 12 urte arteko 1.200 haur inguru zeuden. Gaur egun, adin horretako haurren kopurua erdia baino ez da.

Haur haiek Domingo Lumbier Ikastetxe Pribatuan (neskatilak bakarrik) eta Nafarroako Villoslada Ikastetxe Pribatuan (mutikoak bakarrik) zeuden eskolatuta. Lana jaio berria zen ikastola eta harekin batera, banatzen genuen hezkuntza lana bai eta Colegio de la Compasion Ikastetxearekin (neskatilak bakarrik) ere.

Mutilen ikastetxeko ikasleak eraikin ezberdinetan zeuden banatuta (garbitokian, Bihotz Lagunen antzinako eraikinean...).

Horregatik, Zelandi zabaltzea arnasa hartzeko modua izan zen guztiontzat. Instalazio berriak, jolastoki zoragarriak, frontoia... Beste bi eraikinak ere erabiltzen zituzten: eskolaurreko neska-mutilak "Domingo Lumbierren" eta O.H.Oko (orduan) 1. eta 2. mailako neska-mutilak "Navarro Villosladan".

Baina mutikoak eta neskatilak, irakasleak eta andereñoak lehenengoz elkarrekin egotea izan zen berrikuntzarik handiena.



Trantsizio garaia zen. Gizartean guztia aldatzen zen abia-da bizian, eta ondorioz, baita eskolan ere.

Euskarazko eskolak izan genituen hasieratik eta ingeleseko eskaintza ere zabalduta egin zen. Ikus-entzunezko ikasgela geneukan.

Geroago, Euskararen ezagutza egokitu eta eguneratu zuten irakasleak.


1986an "A" eta "D" ereduak ezarri ziren Zelandin. Orain, ikastetxe elebiduna daukagu.

1990ean Kiroldegia eraiki zuten eta Zelandi berrikuntza jasan zuen ikastetxe pilotua izan zen.

Informatika ikasgela daukagu.

Aniztasuna eta ugaritasunari eskainitako arreta hobera doa P.T.ei eta hezitzaileei esker.

Ikasgela gaur



Urte guzti hauetan zehar asko aldatu gara eta gizarteak eskatu dizkigun beharizonei erantzuna ematen saiatu gara.

Horrek guztiak bizirik gaudela erakusten du, mugimenduan gaudela, gure herriari heziketa zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz beti.

Niri dagokidanez, poztu egiten nau gure ikasleak egunero alai datozela ikustek, Zelandin ilusioa transmititzen dugula ikustek eta gehien behar gaituzten ikasleek atentzio pertsonala jasotzen dutela, bizigarria eta kalitatezkoa.

Hau da etorkizunerako gure erronka: garapen bidean jarraitzea, hezten jarraitzea, gizarteko eskakizun berriei erantzuten jarraitzea. Esate baterako, une honetan, gure ikasleen %10 atzerritarrak edo gutxiengo etnikoetako kideak dira.

Agur bero bat Zelandin ikasketa urteak gurekin burutu dituzuen guztiei. Hemen betiko zenbait lagunek lanean jarraitzen dugu eta jende gaztea daukagu inguruan, jakintsua, bere kezka eta nahiak igortzen dizkiguna.

Agur berezia urte hauetan guztietan Zelandiko Zuzendari izan diren Isabel San Julián, Diego Pino, Carlos Macho eta Iñaki Gorrotxategiri. Eskerrak hartu duzuen arduragatik! Gaur 3 eta 12 urte bitarteko 400 neska-mutilek pozik kantatzen dute:

Zorionak zuri,
Zorionak beti,
Zorionak ZELANDI!!!
Zorion ugari!!!

M. Carmen Extramiana Cameno, ZUZENDARIA

ALTSASUKO "BIHOTZ SAKRATUA" IKASTETXEA

Gure historia, ibilbidea eta identitatea.

"Bihotzez hezten"

Altsasuko Jesusen Bihotza Ikastetxea, hezkuntza arloan "Klaretar" deritzona, erlijio-ikastetxea da eta ibilbide oparoa jorratu du herri honetan.

Urte luzetan izan da garrantzitsua eta aintzat hartzekoa da gure ekarpena.

Erroak Frantzia ditugu. Bertan, Lyon hiri historikoan hain zuzen, gure kongregazioa sortu zen erreboluzioaren (1789) osteko urteetan, hau da, Frantziako gizartearentzat une latz eta korapilatsuak izan ziren haietan. Garai hartan, neska-mutil ugari zebiltzan kaleetan zehar, babesgabe eta inolako heziketarik eskuratu ezinik. Egoera hark

gure sortzailearen gogoia astindu zuen. Izan ere, aterperik gabeko neska-mutil nahasi haiek laguntzeko premiaz ohartuta, Jesusen Bihotzaren Kongregazioa sortzeko erabakia hartu zuen, euren beharrei aurre egiteko helburuaz. Urteak joan ahala, eragozpen handiak jarri zitzaizkien heziketa kristaua eskaintzeko orduan, Frantziako estatu laikoak agindu bat dekretatu baitzuen erlijio-heziketa debekatzeko. Anaiak, berriz, etsi gabe, erabaki ausarta hartu zuten; euren jaioteritik alde egin eta beste herrialdetan jardutearena hain zuzen.

Jakina, herrialde horietako bat Espainia izan zen, garai hartan atzean utzitakoa baino abegitsua zena. 1903an gertatu zen hura.

Beraz, ehun urte igaro dira hona heldu zirenetik. Horregatik, hezkuntzarekin zerikusi handia duen eta guztiontzat maitagarria den lelopean ospatu nahi dugu Mendeurrena: "EHUN URTEZ, BIHOTZEZ HAZITZEN". Horixe izan delako beti gure helburua: bihotzez eta bihotzetik hezea.

Gure ikastetxea, egungoa, Mintegia izan zen 1926az geroztik, geroago, orde, atek zabali eta San Frantzisko Xabier Ikastetxea sortu zen, lehen mailako irakaskuntza eta kontabilitate ikasketak eskaintzen zituen. SAKANA inguruetan "La Escuelilla" deritzoten honetan pertsona bikainek ikasi zuten, gaur egun, jasotako trebakuntza esker onez goraitpatzen dutenak.


Bide horri ekin genion urte luzetan zehar, harik eta eskualdeko gurasoen eskaera eta iradokizunak aintzat hartu nahian, Barrankako gazteriarri ere Mintegiko atek irekitzea erabaki genuen arte.

Geroago beste ikastetxe batekin bateratzeko aukera sartatu zitzaigun. Hortaz, bat egin genuen Altsasuko Gupidaren Ikastetxearekin, izen bereko mojenarekin hain zuzen, eta denboraldi labur batez elkarlanean aritu ondoren, anaiak hartu genuen gure gain. Ikastetxearen zuzendaritza.

1996-97 ikasturtean, Altsasuko Mintegiaren etxe zaharra Ikastetxe misto bilakatu eta SAKANA eta Altsasuko inguruetako ikasleei egin zien harrera.

Gaur egun, gure sortzailearen gogoari helduz, integrazio-rako ikastetxea da, anitz ikasle hartzen dituen. Izan ere, era guztietako ikasleek gain, gutxiengo etniko talde bat eta Hezkuntza Behar Bereziak behar dituztenak ere hartzen baititugu.

Behar horiei aurre egiteko, gutxiengo etniko horiekin eten-



Ikasgela gaur

gabeko harremanak izan dituen orientazio-hezitzaile bat eta errealtate horren jabe diren esperientzia handiko irakasleak ditugu. Ikastetxean egiten dugun lana batzuetan nekagarria bada ere, atsegin dugu gehienetan, batik bat emaitzak ikusi ondoren.

Guztira 300 bat ikasle dira Haur mailako eta Lehen eta Bigarren mailako hezkuntza jasotzen dituztenak, eta ikastetxeak instalazio zabalak eta erosoak eskaintzen dizkie horiei guztiei.

Oro har, ondoko helburuek definitzen dute gure jardunbidea.

- eliz-obra bidez gazteak hezteak.
 - gurasoekin elkarlanean hezteak, betiere gizakia, bizitza eta munduari buruzko ikuskerak kristaua eskainiz.
 - irakasleak arlo guztietan trebatzea, hau da, euren autoestimua, askatasuna, ardurapena eta nortasuna indartzea.
- Horrez gain, konfiantza eta arreta abegitsua sustatzeko xedeaz, tutoretza eta orientazio zerbitzuetan jarri dugu arreta berezia; izan ere, gure ikasleek ezaugarri antizak kontuan hartuta, bakoitzaren eta batez ere beharstuenen beharrei egokitutako erantzunak eskaini ahal izango dizkiegu.

Bestalde, Nafarroako gizarte- eta kultura-errealitatearen partaide izan nahi dugu, eta horregatik Nafarroako ohiturak, baloreak eta tradizioak ezagutarazi eta sustatu egingo dugu, batez ere euskara.

A ereduaz irakasten badugu ere, euskararen ikaskuntza indartzen dugu Haur eta Lehen mailatan. Asmo horrekin, eta Lehen Mailako Hezkuntza amaitzean gure irakasleak egoki mintza daitezten Nafarroako Komunitateko bi hizkuntzez, euskaraz irakasten dugu bestelako ikasgaiak ere. Gurasoek egindako ekarpena ezinbestekoa dugu hezkuntza helburu hauek guztiak betetzeko orduan, izan ere, ikasleek Gurasoen Elkartearen batzordearen bidez euren laguntza luzatu eta parte hartu egiten baitute.

Mendeurrena dela eta antolatutako ekitaldiek, eta batez ere APAS eta Irakasle Kongresuek, bidea eman digute egunotan elkarrengandik gertu eta bizikiro gure sortzaileengandik jasotako klaretarren karisma sentitzeko.

José Miguel Bujanda

AOIZKO "SAN MIGEL" IKASTETXE PUBLIKOAREN 25 URTEURRENAREN OSPAKIZUNA

1977. urtea zen eta Aoizen, beste hainbat herritan bezala, urduritasun berezia nabari zen ikasturte berriaren hasiera zela eta. Ikasle eta irakasleentzat batez ere, baina baita gurasoentzat, udaletxeentzat eta oro har auzokoenizatzat ere. Eskolen Batasuna inauguratuko zen!

Egia esan, ez zen nolana hiko aldaketa izango. Ikastetxe zaharrak utzi eta haiekin batera berogailuaren errauts errearen usaina (zeinen goxo gogoratzen dugun orain!), egurrezko ikasmahaiak, eskaileren hotsa eta kanpaitxoaren soinua ere utziko genituen. Ikastetxe Bateratuak agur esan genien, horrek berekin hartzen zuen guztiarekin batera, Eskolen Batasunean sartzeko.

Bilduak izan ginen ikasle eta irakasleentzat aldaketa zoragarria zen, hiltzaren zentzu zabalenean gainera, bere



abantaila eta eragozpenekin. Autobusa hartzeko goizean goiz jaiki behar genuen (txangora joatean, aldiz, hain da atsegina); jangela (han, borraja jateko gogorik izan ezean ez zegoen beste ezer), ikaskide eta irakasle berriak...

Eta geroztik, hogeita bost urte igaro dira, zorionez beteriko urteak, baita nahigabeez beterikoak ere, azken batez, esperientziak beteriko urteak, kasu askotan bizitza osoa eratzen dutenak, arlo profesionalean nola pertsonalean.

Eta pertsonak garen aldetik, oraitzapenek eta esperientziek aberastu egiten gaituzte, eta horiengan sinesten dugu. Eta elkartzeko aitzakia behar badugu, gure ondotik joan direnak gogoratzeko eta bizi izandako esperientziez mintzatzeko aitzakia behar badugu, zer hobirik esaterako, 25. urteurrena baino?

Horretarako, irakasle talde batek jarduera ezberdinez osatutako programa antolatu du, besteak beste:

- argazki erakusketa.
- guraso nahiz ikasleentzako prestakuntza hitzaldiak.
- eskola aldizkari baten edizio berezia.
- telebista programa bat zuzenean, euskaraz eta gaztelez teknologia berriak erabilia.
- amatera jaialdi bat (antzerkia, musika eta dantza)

Joan den azaroaren 27an 25. urteurrena ospatzeko antolatutako oroitzapenezko ekitaldiak egin ziren eskolan. Eskolako koroak, interpretazio onarekin, ekitaldira joandakoak agurtu zituen (autoritateak, irakasleak eta irakasle ohiak, ikasleak eta ikasle ohiak) eta ohiko berbaldien ondoren, 25. urte hauetako Eskola Komunitateko alderdi adierazgarriak jasotzen dituen argazki erakusketa inauguratu zen.



Ikasgela gaur

230 argazki eskaneatu dira eta horietatik 133 jarri dira ikusgai. Inauteriak, txangoak, kontzertuak... eta gure ustez kultur bizitzan muga garrantzitsua markatu zuen zerbait, ez eskola mailan bakarrik bertako eta probintzia mailako bizitzan ere zabaldu zena, JAIALDIAK! Urte haietan musika, hitza eta gorputz espresioa elkarri eskutik helduta joan ziren lan orokortzaileak eta diziplinen artekoa eginez. Gu geu aitzindari izan ginen lan horretan eta gaur egun berritzaile jotzen diren hainbat proiektu aurrea hartu genien. Vivaldi, Mozart, Beethoven, Chaikovsky, Guridi, gidari bilakatu ziren bidai horretan, historia irakasle eta uztatu ugari eta oparoen ongarri.

Jaialdi horiek denbora laburrean gauzatu ziren arren (1976-1983) oso modu garrantzitsuan markatu zuten eskolaren jardura. Herri osoak parte hartzen zuen sortzen ziren proiektuak aurrera ateratzen eta atzera begirako erakusketak lan, ardura eta berrikuntza handiko urte haiek gogorarazi zizkigun.

Gogora ekartzean sentitzen dugun ilusioa eskola komunitatea aberastuko duten proiektu berrien hazi izan daitezen espero dugu.

oroa

AUTONOMIAKO ETA ESTATUKO ESKOLA KONTSEILUEN XIII TOPAKETEN ONDORIOAK. Oviedo, 2002. "Hezitzaileak XXI. Mendeko gizartean".

Azken zati honetan Autonomiako eta Estatuko Kontseiluen proposamenak jasotzen dira "Irakasleen Prestakuntza"ri dagokionez.

Hasierako prestakuntza.

- Beharrezkoa eta premiazkoa da etorkizuneko irakasleen ikasketa planak aldatzea.

Beharrezkoa da gure sistemak behar duen perfila diseinatzeari ekitea, izango dituen helburuak eta jomugak zehaztea, eta horiek lortzeko diseinatu behar diren planak finantzatzeko.

Etorkizuneko irakasle eta andereñoek eta Bigarren hezkuntzako irakasleek oro har, haien heziketa funtzioari dagokionez, prestakuntza pedagogiko egokia jaso behar dute ekintza profesionala arrakastaz gauza dezaten, forman eta edukian ez ezik zentzuan eta helburuan ere: alegia, zergatik hautatu duen irakaskuntza lanbide gisa eta nola gauzatu behar duen.

Etorkizuneko irakasleek ikasleek heziketan eta gizarteak dituzten beharrak ulertzen lagunduko dien prestakuntza jaso behar dute, giza garapenaren proiektu bat zuzentzen jakin dezan gaur egun bizi garen testuinguru soziokultural ezberdinetan. Irakaslea teknikaria baino eratze prozesuan dagoen izaera baten alderdi gizatiarra eta egoera jakin batek aurkeztutako arazoak antzemateko gai den pertsona da. Ikaslearen ulermenerako klabeak emateko gai den pertsona da, ikasleari ikuspegi gizatiar eta zuzenak zabal dakizkion orientatzeko gai dena.

Prestakuntza horrek berak ikasleen artean sor daitezkeen tentsio eta bortizkeria egoerak desaktibatzen gaitu behar du irakaslea, berriz zuzendu eta jarrera egoskorren eta bortitzen aurrean jarrera lasai eta konstruktiboak gailentzea lortu behar du.

Beharrezkoa da teoria eta praktika uztartzea eta egokia da

hori hasieratik egitea bizitza profesional osoan zehar mantenduz.

Irakaslearen hasierako prestakuntza bigarren ziklo zehatz baten diseinutik planteatu beharko litzateke. Ziklo horretan ikasgai psikopedagogikoak sartu beharko lirateke, didaktika zehatzei edo antzeko ikasgaiak dagozkienak. LOGSEk bere 24. artikuluan aipatzen duena betetzean datza.

Beste alde batetik egokia dirudi irakaskuntzako ikasketa planek espezializazioan baino, integraturiko zientzietan arreta handiagoa jartzea: horrek oinarritzeko heziketan, lehenengo zikloan batez ere, parte hartzen duten irakasle-en kopurua murrizteko aukera emango luke.

Irakaskuntzako ikasketa planen gaurkotasunean beharrezko jotzen da Lizentziatura gradu egun hasierako heziketari eskainitako denbora laburregia dela uste baita.

- Argi dago babes-praktikak ezarri behar direla irakasle berrientzat.

Oposaketak gainditu ostean, praktiketako funtzionarioen urtea teoria eta praktika uztartzeko bideetako bat da; baina gaur egun formula hori gauzatzen den moduan, planteamendu pedagogikoa baino prozedura administratiboa da gehiago. Ideia hori irakasleek Bigarren hezkuntzan lan egin ahal izateko egin behar izaten duten Gaitasun Pedagogikoaren Ikastaroan landu beharko litzateke, horrela LOGSEk 24.2 artikuluan jasotzen duen Didaktika Espezializazioaren Ikastaroa eskuratzeko.

Egokia da irakasle berriek praktikak egiteko aldi bat izatea, profesional berrien nola praktiketako tutoreen jarraipen eta ebaluazio plan serioarekin.

Praktiketako tutoreen lana piztu eta ordaindu egin beharko da, gutxienez jardundako ordu kopuruaren eta meritu profesionalen neurrian.

Irakasle berriak jasotzen dituzten ikastetxeek laguntza planak ezarri beharko dituzte irakasle horiek errazago egokitu daitezen ikastetxean eta halaber, laguntza eskaini beharko die lanaren hasieran.

- Irakaskuntzan sartzeko eredu berria diseinatzeko eskatzen diegu Administrazio lehiatsuei.

Sartzeko sistema berri horrek modu irmoan integratu beharko lituzke etorkizuneko irakasleen ikasketa planek dituzten ezaugarri pluridisciplinarrak eta prestakuntza psikopedagogiko sendoa duten eta irakasle lana burutzeko gaitasun praktikoa duela bermatzen duen heziketa estrategiak. Alderdi hori irakasle lana eskuratzerako egiten diren frogetako gaia izan beharko litzateke.

- Irakasle kolaboratzailearen, koordinatzaile pedagogikoren eta praktiketako tutorearen irudia sustatzea proposatzen dugu.

Positiboki baloratzen da irakaslea "aplikatzen duena" eta "behatua" baino gehiago den, hau da, erabakiak hartzeko prozesuko partaide den hezkuntza ikerketen programean. Unibertsitatearekin harremana izatea. Idazpuruan aipaturiko gainerako irudi guztiak ere baliagarriak izan daitezke eta kasu guztietan dagokien aintzatespena jaso dezakete.

Etengabeko prestakuntza.

- Irakasleen ordutegian Etengabeko Prestakuntza sartu behar da.

Kontseiluek egin duten errealitatearen azterketa argi uzten du irakasleak euren bizitza profesionalean zehar etengabe prestatzen jarraitzeko beharra, gaurkotze zientifikoa, didaktikoa eta soziologikoa prestakuntza horretako parte izan behar da noski, baina baita gutxiengoen integrazioa, elkarbizitza egokia, informazio teknologien garapena, taldeen dinamika lortzeko estrategiak eta tutore ekintzako estrategiak ere. Behar hori ezin gaindi daiteke prestakuntza ikastaroetan parte hartzea edo ez hartzea irakasleen gogoaren arabera bada.

Eduki batzuek derrigorrezkoak behar dute izan irakaskuntzaren profesional guztientzat eta halaber, lanaldiaren barruan ere denbora parte bat eskaini behar zaio prestakuntza horri. Eduki horiek aurrez zehaztutako beharrei erantzun behar dute, eta ondorioz antolatzen diren heziketa jarduerak praktikan duten probetxuen eta errentagarritasunaren arabera ebaluatu beharko dira. Irakasleak gauzatutako ikerketaren eta praktikaren arteko komunikazioa zabaldu behar dela uste dugu; irakaskuntzaren alorreko prozeduretan egindako ikerketak eta aurkikuntzak irakaslearengana iritsi behar dira eta horrek berrelikatu egin behar ditu.

Aipatu dugun guztia bilduta, honelako prestakuntza eredu ez mintzatuko ginateke:

1. Teorien azalpen hutsean geratu gabe eskolako arazoaren konpromisoari, loturari eta inplikazioari erantzuten dioten ereduak, teoria eta praktika, elkarriketa eta elkarlana uztartzen saiatzen dira ereduak.

2. Berrikuntza eta esperimentazio taldeen sorrera sustatzen duten ereduak eta horrek laguntza eta jarraipena jaso beharko ditu.

3. Autoprestakuntza eta sustapen profesionala bultzatzen duten ereduak, norbanakoen laguntzekin eta ikasketetarako baimenekin (hizkuntza ikastaroak atzerrian, prestakuntzako jardueretan parte hartzea, urte sabatikoak...).

4. Ikerketa lana ikastetxeko hezkuntza egoerarekin lotuz Unibertsitateekin uztartzen diren ereduak.

5. Autonomia eta lan kooperatiboa faboratzeko ikastetxetako prestakuntzaren alde egiten duten ereduak.

6. Zeharkako gaiak jorratzen dituzten ereduak: baterako hezkuntza, kulturen arteko hezkuntza, bide-hezkuntza, osasun-hezkuntza...

Horretan guztian garrantzitsua izango litzateke egiaztatu beharra saihestea, hau da, ikastaroetara merezimenduak aitortzeko ziurtagiri erabilgarri bat eskuratzeko helburuarekin joatea. Prestakuntza iraunkorra ordainketa faktoreekin lotzeak bertuterik gabe utzi duela uste dugu. Azkenik, prestakuntza jarduerak oro hezkuntza praktika zehatz bati lotutako proiektu baten elaborazioari eta gauzatzeari lotuta egon beharko litzatekeela uste dugu.

- Ikastetxeetako prestakuntzaren alde egitea.

Garrantzitsua dirudi irakasleen arteko lan kooperatiboa bilatzea eta prestakuntza ikastetxe bakoitzak dituen beharrrizantetara egokitzea. Horregatik uste dugu ikastetxean egindako prestakuntzak, kide anitzeko erabakiak hartzeko konpromisoa eskatzen duela eta, taldeko lana, pedagogia eta kudeaketa autonomia susta ditzakeela, eta ondorioz, hezkuntza komunitatea indartu dezakeela. Beharrrizanak antzematea, estrategiak zehaztea eta norbanakoaren lehiak hobetu eta irakasleen isolamendua hautsiaz taldeko lana sustatuko duen prestakuntza garatzea ikastetxean gauzatu behar dira.

- Egokia da praktika onak zabaltzea.

Norbanakoaren antzeko egoeretan dauden profesionalak sortu, gauzatu eta ebaluatutako esperientziak eta proiektuak ezagutzea elementu motibatzaileak izan daitezke beste hezitzaile batzuentzat.

- Autoprestakuntzarako NNTtak sustatzea.

Badira urrutitik egindako jarraipen batekin gauza daitezkeen ikaskuntza instrumentalak, gaur egun martxan jartzen ari dira ikaskuntza modu horiek eta guztiongana iristeko eta erabiltzaile bakoitzak duen astira egokitzeko birtualtasuna dute. Baina horretarako irakasleei eta ikastetxeei NNTtetan sartzeko bidea erraztu behar zaie.

Administrazioko eta zerbitzuetaiko langileen prestakuntza.

- Ikastetxe guztietan profesional horien hornikuntza sustatzea.

Ikastetxeetako administrazio eta zerbitzuetaiko langileek ere ikastetxearenak eta bertako langileenak diren hezkuntzako hainbat alderdiri modu etengabearen erantzun behar diete. Horretarako, langile horiei prestakuntza zehatza eskaini behar zaie, baita ziurtagiriaren bitartez egiaztatu daitezkeen prestakuntza bera ere, ondoren, kurrikulum profesionalean, ikastetxeetan euren lana egiteko abantailak emango dizkien prestakuntza.

Gurasoen prestakuntza.

- Gurasoen ikastetxeak sustatzea.

Dokumentu guztietan aipatzen dira gurasoen eskolak familiarako arduradunen prestakuntzako oinarritzko elementu gisa. Prestakuntza horrek Administrazioen laguntza behar

Foroa

du, baita finantza-laguntza ere, Eskola Kontseiluetan ordezkaritza duten taldeen artean instituzio-prestakuntzarik egokitzen ez zaion bakarra delako. Ez dugu uste inork zalan-tzan jarriko duenik familien arduradunek prestakuntza egokia jasotzeak irakasleen eta hezitzaileen lana erraztu eta indartu eta ikastetxeetako bizitza hobetuko lukeela.

Gurasoen prestakuntzan horiek antolatzen dituzten erakundeek eta federazioek aktiboki hartu behar dute parte. Era berean, ikasleen gurasoak aholkatzeko irakasleak prestatzeko programak sortzea proposatu nahi dugu bai eta irakasleen nahiz familien arteko harremanak hobetzeko talde dinamikak ere.

Gurasoen prestakuntza programek arlo ezberdinak landu

beharko dituzte: tutoretza, zikloa, garaia, ikastetxea, udala, eskualdea eta herrialdea. Ikastetxeko ekintzak Hezkuntza Proiektuan eta Urteko Programazio Orokorretan sartuko dira. Udaleko prestakuntza jarduerak Udaleko Eskola Kontseiluen programazioetan sartuko dira; eta Udaleko prestakuntza jarduerak Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzako talde zuzendarian.

Azkenik, Autonomiako Eskola Kontseilu bakoitzak hobekuntzarako proposamen horiek bere Administrazioari igortzea erabaki dugu. Proposamen horiek argitaratzen den legezko edozein arautan kontuan har daitezzen eskatu-ko dio Kontseiluak Administrazioari.

Pertsonak



GUILLERMO ALDAVE. BATXILERGOKO SARI BEREZIA

Iruñeko "San Cernin" ikastetxeko ikaslea

Guillermo Aldavek, joan den ekainera arte San Cernin ikastetxeko ikaslea zena eta egun Nafarroako Unibertsitateko Medikuntzako lehenengo mailako ikasle denak ez zuen uste Batxilergoko Sari Berezia jaso

zezakeenik. Joan den urrian zehar azterketara aurkeztu zenean, oso adi zegoen bere unibertsitate bizitzaren hasiera zela eta ia ez zuen gogoratzen ekainean probak egiteko izena eman zuenik ere. Azterketan enborreko ikasgaiari buruzko bi galdera (festu komentario bat eta hizkuntza proba bat) eta bere espezialitateari buruzko beste bi galdera egon ziren. Aste batzuk beranduago ikastetxeko zuzendariak eman zion berri ona, saria eskuratu zuen, bai eta oraindik gauzatu ez den nazio mailako fasera igarotzea ere.

Guillermo Medikuntzako lehen urtean dago eta ikastetxean egindako ibilbideak egunero lan egiteko ohitura eta kimikan nahiz biologian jasotako oinarri ona eskertzen ditu. orain guztia norberaren esku dagoela dio eta hori da bere ustez, ikastetxearekiko Unibertsitateak duen alde handiena. Gaineratu du, Unibertsitateak ikasteko modu sakon eta zehatzagoa eskatzen duela jakintzat ematen delako oinarria ezaguna dela eta test erako proben bitartez aztertzen delako zehaztasunen ezagutza.

Sari horrek bere ikasketa txostenean duen garrantziaz ohartuta Guillermok dio unibertsitatean eskoletara joatea ikastetxean baino askoz ere garrantzitsuagoa dela, unibertsitateak ikasketa modu ezberdina eta sakonagoa eskatzen duelako.

Guillermok maitasunez gogoratzen ditu Batxilergoko bere irakasle guztiak eta bereziki bere tutorea, Ignacio Bernal, eta San Cernin ikastetxean egindako bideak gordetzen dituen oroitzapenen artean Italiara eta Madrilera egindako bidaiak azpimarratu ditu. Eskia, futbola, zinea eta lagunekin irteera ditu zaletasun nagusi, eta Guillermok ez du oraindik espezialitatea hautatu baina batez ere kirurgia eta gaixoa-erakiko harreman zuzena ditu gustuko.



AINHOA LARUMBE GIL, BATXILERGOKO SARI BEREZIA.

Iruñeko "Basoko" I.E.S.ko ikaslea.

Ainhoa Larumbe Gilek Iruñeko Basoko B.H. In burutu zituen E.S.O.ko eta Batxilergoko ikasketak, eta Batxilergoko sari berezia jaso du kalifikazio handienarekin.

Basoko B.H. lko Hezkuntza Komunitate osoarentzat oso pozgarria da sari preziatu hori jaso izana.

Betidanik izan du ikastea zale, eta Zientzia eta Matematika arloetan bereziki nagusitu zen eta 2002ko deialdian, Nafarroako Fisikaren Olinpiadan bigarren postua lortu zuen eta brontzezko domina Nazio mailakoan.

Azpilagaña Ikastetxe Publikoan burutu zituen Lehen Hezkuntzako ikasketak, eta han ere nabarmendu izan da. Irakurketa lantzen du, zinea eta informatika ere gustatzen zaizkio eta maitasunez gogoratzen du Institutuan bizi izandakoak eta han egindako lagunak.

Gaur egun Nafarroako Unibertsitate Publikoan dago, Gestio Informatikako lehen ikasturtean.

Guk ikasle bikain moduan gogoratzen dugu Ainhoa eta batez ere, zuzentasunagatik, elkertasunagatik eta ikaskideei laguntzeagatik nabarmentzen zen pertsona bezala.

Lerro hauen bitartez Basoko B.H. lko kide guztien zorionik beroena helarazi nahi dion.

Ricardo Zufiaurre Pejenaute
Basoko I.E.S.ko Zuzendaria

Pertsonak



DANIEL PÉREZ GUTIÉRREZ,
BATXILERGOAREN SARI BEREZIA
Iruñeko "Irabia" ikastetxeko
ikaslea

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzako lehen ikasturtean dagoen Daniel Pérez Gutiérrez-ek ziur aski baieztatuko lukeen

bezala, Batxilergoaren Sari Berezia eskuratzea "urte on baten" amaiera da. Jaiotzez Gareskoa, Madrilen ere bihotzean daramana, oro berri bati hasiera eman dio unibertsitateko ikasle gisa, honek eragiten dituen ohiko kez-
kak, ikasgaien zailtasuna eta unibertsitateak dituen ezber-
dintasunak kontutan hartzen dituela. Eta, sendeengandik
urruti egoteak suposatzen duen ahalegin berezia gaindi-
tuz, gehiago ikasteko bere burua estutzeko ilusioa ere
baduela.


Iragan ikasturteari Kanadatik itzuliz hasiera eman zion,
bertan hilabetez egona zen Nafarroako Gobernuak diruz
lagundutako ingeles-ikastaro bat burutu zuela. Zaragozan
izan ziren eskualdeko Kimikako olimpiadetan parte hartu
zuen eta bigarren postua lortu zuen, eta ondorioz gero
Oviedoko olimpiada nazionaletan hartu zuen parte, eta
bertan zilarrezko domina eskuratu zuen. Azkenik,
Batxilergoan Ohorezko Matrikula izan zuen 10eko batez
beteko nota zuela bere ikasketak espedientean.

Lanerako eta ikaskideei laguntza emateko, delegatu gisa
hainbat urtez jarraian ordezkatu zituen gainera ikastetxe-
an, gaitasuna gailentzen dira. Irabia ikastetxeko ikasle eta
irakasleen begirunea irabazten jakin izan du beti, halaber,
guk ere bere ondoan anitz ikasi dugu eta bere apunte on
eta baliagarriak gordetzen ditugu oraindik.

Danik futbola ere maite du. Barçaren zale sutsua da, joka-
lari bezala ere aritu zen Oberena taldean lehendabizi eta
Lizarrako Izarran ondoren atzelari libre gisa, baloi bakar
bat galdutzat ez ematea bere ezaugarri nagusia zela.
Batek baino gehiago gogoratuko du kadete zela eskuadra-
tik lagunak taldeari sartu zion gola, Izarrari garaipena eta
Udaberriko kopa eskuratzeko balio izan ziona.

Bere bizitzaren lehendabiziko lerroetan aipatu beharreko-
ak dira literaturako bi sari, bai bertsoz nola prosaz.
Handik aitzina idazten jarraitu dituen lerroen lekuko izan
gara, saria irabazi ala ez. Danik ongi daki horren bidez,
esfortzu jarraitu eta isilekoaren bidez, lortzen dela nagusi-
ki ikastea. Beste lerro hauetatik bene-benetan zehar
nahi dugu lortutako sarietatik eta sari eta arrakasta gehi-
ago ere lortzea opa diogu. Denbora kontua izango da.

Irabia, 2003ko urtarrilaren 21ean
Marcelino Arsasagarey Auzqui
Batxilergoaren koordinatzailea



AITOR VILLAFRANCA VELASCO,
NAFARROAKO MATEMATI-
KA OLIMPIADAKO LEHEN SAIL-
KATUA.

Tuterako "Tuterako Benjamin"
B.H.I.ko ikaslea.

Konpas baten eta erregela
baten laguntzaz, "Tuterako
Benjamin" Institutuko ikasle

honek probako sei buruketak ebatzi zituen. Azterketara
aurkeztu ziren gainerako 85 kideak gainditu eta Tenerifen
izango den nazio mailako faserako txartela eskuratu zuen.
Valtierrakoa da, Luis Villafranca Guillorme eta Isabel
Velasco Zapateriaren semea. Irabazlea Erriberakoa da eta
Asier izeneko 21 urteko anaia nagusiagoa dauka, hura
ere ikasle bikaina izan zen "Tuterako Benjamin" Institutuan
eta egun Zaragozako unibertsitatean Telekomunikabidee-
tako Ingeniaritzako 4. maila ikasten dihardu.

Aitorrek Valtierra "Félix Zapatero" ikastetxe publikoan
burutu zituen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako
ikasketak. Ikasketak horiek bukatu ostean, "Tuterako
Benjamin" Institutura igaro zen eta gaur egun bertan ikas-
ten dihardu Batxilergoko Zientzia eta Teknologien 2. ikas-
turtean. Bere osmoda Telekomunikabideak ikastea da.
ESOko eta Batxilergoko 1. mailako bere notak bikainak
izan dira. ESOan bikain eskuratu zuen ikasturte guztietako
ikasgai guztietan. Batxilergoko 1. mailan 9,75eko batez
bestekoa lortu zuen.

Ingelesa ezagutu eta menderatzeaz gain, frantsesaren
oinarriko ezagutza du, eta Tuterako Hizkuntza Eskola
Ofizialean alemaneko 2. maila ari da ikasten.

2001. urtean bigarren postua lortu zuen "Tuterako
Benjamin" B.H.I.aren antolatzen duen Sormenari
Sariak lehiaketako Narrazio Motzaren eta Obra Motzaren
kategorietan, ingelesez. 2002. urtean Narrazio Motzaren
kategorian nagusitu zen.

Urtero gure ikastetxeak eskolaz kanpoko ekintza gisa anto-
latzen duen Arkeologiako Ikasgelan ere parte hartu izan
du.

Aitorrengan bikaintasunaren maila orekatua da bereizga-
rriena, izan ere gaitasun paregabeak ditu ondorengoetan:

- Lehia zientifikoan, ikasketetako emaitzek eta Matemati-
kako Olimpiadetan jasotako sariak erakusten dituzte.
- Lehia humanistikoa, txikia zenetik irakurtzeko duen zale-
tasunagatik, idazteko duen erraztasunagatik, hizkuntzekin
duen erraztasunagatik, arkeologia zaletasunagatik, etab.
- Giza kalitatea, egoera guztietan erakusten duen natural-
tasun eta apollitasunagatik, bai eta gainerakoak tratatzeko
duen adetasunagatik ere. Ondorioz, estimuan dute haren
ikaskideek eta irakasleek ere.

Gaurkotasuna

V. JARDUNALDIA ZENTROKO ESKOLA KONTSEILUEKIN.

Aurreko urteetan bezala aurten ere, Nafarroako Eskola Kontseiluak Nafarroako Foru Komunitateko Zentroko Eskola Kontseiluekin egindako topaketen V. Jardunaldia antolatu du.

2003. urteko gaia (IV. Jardunaldiko kideek hautatua) **"Irakasleak: prestakuntza, funtzioak eta tutoretza"** da.

Jardunaldia datorren apirilaren 12an, larunbata, gauzatu-ko da Iruñeko Planetarioan, 10ak eta 14ak bitartean.

Programaren aurrerapena:

9:30 h. Izena eman dutenei materiala eskuratzea.

10 h. Jardunaldiaren ongietorria eta irekiera.

10:15 h. **José Antonio Marina** irakaslearen hitzaldia, jar-
dunaldiaren izen berarekin (berretsitako asistentzia).

11 h. Elkarriketa

11:30 h. Etena-kafea.

12:00 h. Gaiari burzko mahai-ingurua:

Isabel Baldelomar and., eskola orientzailea.

M^a Paz Mateo and., zuzendariordea eta irakas-
lea.

Caty Lecumberri and., irakasle tutorea, askotari
kotasunaren arreta.

13:00 Elkarriketa

13:30 h. Ekitaldiaren amaiera.

Diptikoa berriemailea igorriko zaie ikastetxe guztiei eta
halaber, komunikabide guztietan sartuko da berria, imple-
mentazio handiagoarekin Nafarroako Foru Komunitatean.

IRAKASLEEN ETA ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ERRETIROAK, 2002. urtean.

Nafarroako Eskola Kontseiluak omenaldi gisa balio duen gogoramendua egin nahi die joan den urtean zehar irakaskun-
tza lana eta irakaskuntzari eskainitako laguntza amaitu dutenei. Eskerrak.

HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK: IKASTETXE PUBLIKOAK.

Izena

ACHA GOICOECHEA, M^a Rosario
AGUADO VENTURA, José Miguel
ALBÉNIZ IROZ, M^a Carmen
ALONSO RAMAS, Evaristo
AMÓZTEGUI SERRANO, Pedro M^a
ANADON ANDREU, Elena
ANCÍN ECHARRI, Luis Santiago
ANDUEZA ANOCÍBAR, Pilar
ARANGO ARBURUA, Kontxexi
ARDANAZ INDA, M^a Resurrección
ARTIAGA USIETO, M^a Carmen
BARBARIN MACUA, Jesús María
BARRIOS SANTAMARÍA, Vicente
BLANCO OMATOS, M^a Teresa
BURGUI BALLAZ, Josefina
COSO LAMPREABE, Inmaculada
CUEVAS ARNEDO, José Miguel
DÍEZ ULZURRUN ELIZALDE, Angeles
ECHAMENDI OLÓNDRIZ, Esther
ECHARTE URTASUN, M^a Mar
ECHEGARAY BOBADILLA, M^a Sagrario
ELIZALDE ROMANO, M^a Pilar
ERRAMUZPE ABADIA, José Luis
FERNANDEZ FERNANDEZ, Jesús
FERNANDEZ JIMÉNEZ, M^a Pilar
FERNÁNDEZ JIMÉNEZ, Teresa
FERNÁNDEZ RUIZ, Pedro
GARCÍA GALLEGO, Fernando
GARCÍA LOBERA, M^a Teresa
GAVARI LECUMBERRI, M^a Soledad
GAVIRIA ZABALA, Celia
GOÑI ECHEVERRÍA, Presentación
GURPIDE IBARROLLA, Inmaculada
ÍNIGUEZ SOLA, M^a Gracia
INCHUSTA NARVAIZ, M^a Pilar

Ikastetxea

"Mendillorri IV" IP
Ikastetxe Publikoa
"Mendillorri III" IP
Ikastetxe Publikoa
Ikastetxe Publikoa
Ikastetxe Publikoa
"Elvira España" IP
"Remontival" IP
Ikastetxe Publikoa
Ikastetxe Publikoa
Ikastetxe Publikoa
"Santiago Bidea" IP
"Los Sauces" IP
Ikastetxe Publikoa
"Hilarión Eslava" IP
"San Juan de la Cadena" IP
"Vázquez de Mella" IP
Ikastetxe Publikoa
"Lorenzo Goicoa II" IP
"Vázquez de Mella" IP
"San Francisco" IP
"San Francisco" IP
Ikastetxe Publikoa
"Ermitagaña" IP
"San Julián Mendiá" IP
Ikastetxe Publikoa
Ikastetxe Publikoa
Ikastetxe Publikoa
Ikastetxe Publikoa
"Mendillorri I" IP
"Lorenzo Goicoa II" IP
"García Galdeano" IP
"San Jorge I" IP
"Vázquez de Mella" IP
Ikastetxe Publikoa
Ikastetxe Publikoa

Herrialdea

Iruñea
Alesbes
Iruñea
Ribaforada
Mendigorría
Tutera
Lizarra
Murieta
Etxalar
Zangoza
Zizur Nagusia
Barañain
Noain
Burlata
Iruñea
Iruñea
Erriberri
Atarrabia
Iruñea
Iruñea
Iruñea
Miranda de Arga
Iruñea
Tutera
Cascanete
Corella
Monteagudo
Beintza-Labaien
Iruñea
Atarrabia
Iruñea
Iruñea
Iruñea
Añorbe
Otxagabia

Saurkotasuna

IRIARTE ARBELOA, Isabel
 IRIARTE GARBISU, Esther
 IRISO MUÑOZ, Juan José
 ITURRIRIA GONÍ, M^a Paz
 JAREÑO SAEZ, M^a Jesús
 LACALLE ZÚNIGA, Bienvenida
 LÓPEZ ARRAIZ, M^a Begoña
 LORENTE OÑA, M^a Concepción
 MANTEROLA ERRO, M^a Carmen
 MARTÍNEZ OCHOA, Ángel
 OLAVE ARCE, Mercedes
 PÉREZ PAZ, Ángel
 PUEYO ARIZCUREN, Laura
 RECLUSA GLUCK, Fernando
 REDONDO GÓMEZ, Teófilo Santiago
 RIEGA RIEGA, M^a Isabel
 RUIZ ARTEGUI, M^a Asunción
 SADA LARENA, M^a Araceli
 SADA LARENA, M^a Luisa
 SADA MORENO, M^a Luisa
 SAN MARTÍN CAMPOS, Jesús Vic
 SAN MARTÍN MARTÍNEZ, Encarnación
 SÁNCHEZ BENITO, M^a Isabel
 SANTOS RUIZ, Rosa M^a
 SILLERO ALBIZU, José Miguel
 URTASUN BEROIZ, M^a Gregoria
 ZABALA ERDOZAIN, Teresita
 ZOZO MARCO, Luis Valerio
 ZOZO SALVADOR, M^a Luisa

"Victor Pradera" IP
 "Ermitagaña" IP
 "San Babil" IP
 "Alaiz" IP
 Ikastetxe Publikoa
 Ikastetxe Publikoa
 "Ermitagaña" IP
 Ikastetxe Publikoa
 "Lorenzo Goicoa II" IP
 "García Galdeano" IP
 "José M^a Huarte" IP
 "Griseras" IP
 "San Juan de la Cadena" IP
 "Iturrama" IP
 "José M^a Huarte" IP
 "Torre Monreal" IP Berezia
 "Remontival" IP
 "Azpilagaña" IP
 "Los Sauces" IP
 Ikastetxe Publikoa
 "Azpilagaña" IP
 "San Francisco" IP
 Ikastetxe Publikoa
 Ikastetxe Publikoa
 CEBA "José M^a Iribarren"
 "Los Sauces" IP
 Ikastetxe Publikoa
 Ikastetxe Publikoa
 "Vázquez de Mella" IP

Iruñea
 Iruñea
 Ablitas
 Barañain
 San Adrián
 Urantzia
 Iruñea
 San Adrián
 Atarrabia
 Iruñea
 Iruñea
 Tuteria
 Iruñea
 Iruñea
 Iruñea
 Tuteria
 Lizarrta
 Iruñea
 Barañain
 San Adrián
 Iruñea
 Iruñea
 Viana
 Ribaforada
 Iruñea
 Barañain
 Gares
 Erronkari
 Iruñea

HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHENENGO HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK: IKASTETXE BATERATUAK.
Izena

COSTANILLA OLAVE, María Pilar
 ELIZAGOYEN BERRUETA, M^a Carmen
 GOROSTIAGA BAZTARRICA, María
 GUILLÉN LABIANO, Francisco
 JIMÉNEZ ZARATIEGUI, Gloria
 MAINZ PÉREZ, Natividad
 PASCUAL ECHARRI, Ana María
 RAMOS LORES, María Asunción
 RUIZ CALOCA, Antonina
 VIZCAÍNO MARTÍN, María Pilar

Ikastetxea

"La Presentación"
 Paz de Ciganda Ikastola
 Paz de Ciganda Ikastola
 "Ntra. Sra. del Huerto"
 "Santo Tomás"
 "San Ignacio"
 "Santa María La Real"
 "Ntra. Sra. de la Compasión"
 "Ntra. Sra. de la Compasión"
 "San Francisco Javier"

Herrialdea

Atarrabia
 Atarrabia
 Atarrabia
 Iruñea
 Iruñea
 Iruñea
 Iruñea
 Iruñea
 Iruñea
 Ribaforada

BIGARRREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK. IKASTETXE PUBLIKOAK.
Izena

AGUADO HERNÁNDEZ, Vicente Luis
 ALGARRA SOLANO, M^a José
 ALVAREZ SORIANO, Josefa
 ARTAJO IROZ, M^a Ángeles
 BARASOAIN CUESTA, José Manuel
 CEBRIAN YOLDI, Ignacio
 CIAURRIZ CORNAGO, Julio
 DELGADO ACARRETA, Divina Sonia
 ECHEVERRI BEORLEGUI, José Luis
 De FEDERICO GARCÍA, Alfredo
 GARAY IRIARTE, Santiago

Ikastetxea

"Tuterako Benjamin" B.H.I
 "Barañain" B.H.I
 "Plaza de la Cruz" B.H.I
 B.H.I
 "Tierra Estella" B.H.I
 "Barañain" B.H.I
 "Tafallako Politeknika" B.H.I
 "Tuterako Benjamin" B.H.I
 "Basoko" B.H.I
 "Julio Caro Baroja-La Granja" B.H.I
 "Pablo Sarasate" Kontserbatorioa

Herrialdea

Tuteria
 Barañain
 Iruñea
 Azkoien
 Estella
 Barañain
 Tafalla
 Tuteria
 Iruñea
 Iruñea
 Iruñea

Gaurkototsuna

GARCÍA GAINZA, Josefina
GÓMEZ-ULLATE VERGARA, M^o Adela
IDARETA GARCIRIÁIN, Javier
IZAL MARINOSO, M^o Carmen
LACOSTA GABARI, Juan José
LAHOZA DIESTE, Adolfo
LECUE IBARGUCHI, M^o Antonia
LÓPEZ POMARES, Joaquín
MALÓN ADRIÁN, Ana María
MENDÍVIL MENDÍVIL, Fernando
MORALES BAYO, Pedro
PASCUAL RICARTE, M^o Pilar
REMÍREZ GÓMEZ, Ángel
RODRÍGUEZ RIBAS, Luis
SAN MARTÍN DÍEZ, Nieves
SÁNCHEZ ASIAIN, Eduardo
SENOSIÁIN MURUGARREN, Adolfo
SERRANO SIERRA, Julio José
USECHI ÁLVAREZ, Agustín

"Plaza de la Cruz" B.H.I.
"Tuterako Benjamin" B.H.I.
"Navarro Villoslada" B.H.I.
S.O.E.V.
"Navarro Villoslada" B.H.I.
"Tafalla I" B.H.I.
"Padre Moret" B.H.I.
"Plaza de la Cruz" B.H.I.
B.H.I.
"Marqués de Villena" B.H.I.
B.H.I.
"Tuterako Benjamin" B.H.I.
"Elortzibar" I.E.S.O.
"Alhama" B.H.I.
"Basako / Padre Moret" B.H.I.
I.E.S.O.
Hezkuntza Zuzendaritza Orokorra
"Eti II" B.H.I.
"Virgen del Camino" B.H.I.

Iruñea
Tutera
Iruñea
Iruñea
Iruñea
Tafalla
Iruñea
Iruñea
Iruñea
Carcastillo
Marcilla
Cortes
Tutera
Noain
Corella
Iruñea
Cintruénigo
Iruñea
Tutera
Iruñea

BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK: IKASTETXE BATERATUAK.

Izena

BRAVO CALDERÓN, Isabel
LINZOAIN YARNOZ, Miguel Ángel
MURILLO OFICIALDEGUI, M^o Soledad
CASTRO ROBLES, Delfina
GARCÍA GALDEANO, Ona Félix
GONZÁLEZ MARTÍNEZ, Manuel
HERIAS OSCARIZ, Carmen
HUARTE IRAIZOZ, Aurora
MUNÁRRIZ GUELZENZU, Milagros
TIRAPU MURILLO, Juana María

Ikastetxea

"Ntra. Sra. De la Compasión"
"San Ignacio"
"Ursulinas"
"Anunciata"
"Santa María La Real"
"Ursulinas"
"San Ignacio"
"Vedruna"
"Bihotz Sakratua"
"Santo Tomás"

Herrialdea

Iruñea
Iruñea
Iruñea
Tutera
Iruñea
Iruñea
Iruñea
Iruñea
Iruñea
Iruñea

ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK.

Izena

ARMENDÁRIZ AGORRETA, M^o Conce.
FERNÁNDEZ ARRAYOZ, Rafael
FUENTES ARTICA, Dámaso
MALDONADO RETA, Alfredo Luis
MURO GARAYOA, Marina
MUZQUIZ SANTON, Trifón
OTERMIN URRRA, Sagrario
PEGENAUTE GONZÁLEZ, M^o Pilar
PÉREZ IRIARTE, Paula
SEVILLA UHALTE, Miguel

Ikastetxea

S^o de Inspección Técnica y Servia.
"Padre Moret" B.H.I.
Navarro Villoslada B.H.I.
Dirección General de Educación
"Toki Ona" B.H.I.
"Ibaialde" B.H.I.
Ikastetxe Publikoa
Hizkuntza Eskola Ofiziala
"Julio Caro Baroja-La Granja" B.H.I.
Adaptación Social B.H.I.

Herrialdea

Iruñea
Iruñea
Iruñea
Iruñea
Bidasoa
Burlata
Zudairi
Iruñea
Iruñea
Iruñea

De

Editoriala

HEZKUNTZA SISTEMA NAFARROAN: LABURPENA, 2001-2002 ikasturtea.

Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2002ko abenduaren 19an egin zuen Osoko Bilkuran, Foru Komunitateko hezkuntza sistemari dagokionez manuzkoa den urteko txostena onetsi zuen.

Nafarroako Hezkuntza Sistemaren 2001/2002 ikasturterari buruzko txostena Nafarroako Eskola Kontseiluak legez adjudikaturik duen betebeharririk behinenetakoa da.

Helburua Nafarroako gizarteari eta bere agintariari Foru Komunitatean eskaintzen eta garatzen diren hezkuntzako zerbitzu eta egitarauen berri ahalik eta osoa eta errealean ematea da. Ondorioz, txosten honetan hamaika datu, koadro eta estatistika ematen dira.

Bigarren alderdiari dagokionez, Eskola Kontseiluak iradokizun eta balorazio batzuk egiten ditu. Iradokizun horiek Kontseiluko kideek eztabaidatu ondoren eta gehiengoak balorazioa eman ondoren ematen dira.

Orain aurkezten dugun dokumentua datu hauekin onetsi zen: 11 boto alde, 5 boto aurka, 1 abstentzioa.

Beraien boto partikularra adierazi dute ondoko erakundeetako eskuordeek: CC.OO., STEE-EILAS eta HERRIKOA.

Txostena argitaratu egingo da, eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeari eta Nafarroako Irakaskuntzako Zentro guztiei igorriko zaie.

Halaber, laster ondoko web orrian egonen da eskuragarri:

www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra

Proposamen nagusiak era honetan laburtzen ahal dira:

Haur Hezkuntza. 0-3 urte bitarteko zikloaren garapena

Nafarroan, duela hiru urte hasi zenetik, hezkuntzako epata honek gero eta garrantzia handiagoa lortu du, eta nahiko da dau hauek kontuan izatea.

Unitateen kopurua: 161


Haurrak: 1.664.

Aurten ere, hirugarren urtean jarraian, Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi behar du kezkatutik dagoela, zeren eta oraindik ez baita Haur Hezkuntzaren lehenengo tarte (0-3 urtekoena) arautu, nahiz eta Nafarroako eskola kontseilu honek zegoen irizpena eman zuen eta, gainera, ezartze prozesua dagoeneko abiatu den.

Horren ondorioz, Nafarroako Eskola Kontseiluak pre-sazko araupeketa eskatu du, LOGSE Legearen mar-koan.

Lanbide Heziketari dagokionez:

Hurrengo datuek heziketa ziklo berrien azken urteetako bilakaerari buruzko estatistika-ikusmoldea dakarte. Azken urteotan LOGSE ezartzeko azken fasea egin da.



eskolara